

## Pasai Donibaneko segada



## Operazioaren prestaketa

1984ko martxoaren 18an, Rosa Jimeno komandoaren kontaktua atxilotu zuten kaleko jantzitako bi polizia, baina isilean gorde zuten atxilotuta. Torturapean etxera eta lantokira deituzera behartu zuten, eta haurdun zegoen adiskide bati laguntzen ari zela esatera.

## Segada


Torturapean eta pistola lokian jarrita, Iparraldeko kontaktuari deitu behar izan zion Jimenok. Dena lasai zegoela esanarazi zioten Jimenori, eta ohi zuten moduan komandoarekin hitzordu bat lotzera behartu zuten. Martxoaren 22rako geratu ziren, Pasai Donibaneko itsasargirako bidean, aurrez zehaztutako harkaitz batzuetan. Egun hartan mugimendu handia sumatu zuen Jimenok komisarían, eta lagunak ez zituztela hilko agindu bazitoten ere, susmo txarrak piztu zitzaizkion.



**Kideak**  
Zodiac batean etorri ziren Lapurditik Komando Autonomoetako bost kide: Pelu, Txapas, Kurro, Pelitxo eta Joseba Merino.



**Poliziak**  
Operazioan 20 bat polizia parte hartu zuten; Espainiako Poliziako Gorputz Nagusiko kideak ziren.



**Seinaleak**  
Eskuargia hiru aldiz piztu eta itzali behar zuten Jimenok. Horixe zen hitzartutako seinalea.



**Hankak lotuta**  
Hanketatik lotuta jarri zuten poliziek Jimeno harkaitzaren puntan, lagunei seinalea egin ziezaien. Atzean, metro batzuetara polizia bat zegoen etzanda, Jimenori hankak lotzen zizkion sokari eusten.



**Urpekariak**  
Guardia Zibileko Urpeko Ekintzetarako Talde Bereziako kideek ere parte hartu zuten segadan, inork alde egin ez zezan.

## Gertakizuna

## 1 1984a, Pasaia badi

Gaueko hamarrek aldera heldu zen komandoa Pasaia. Jimenok hitzartutako seinaleak egin zizkien, eta susmo txarrak hartu gabe harkaitzera hurbildu eta lehorrera ateratzen hasi ziren. Pelitxo izan zen lehena, Kurro bigarrena, eta Joseba Merino zihonan atzetik.

## 2 Tiro zaparrada

"Geldi, Polizia!" entzun zuten, eta sekulako tiro zaparrada segidan, lehorreratan hasi orduko. Ontzitik salto egin zuten Merinok. Harrapatu eta lehorrera atera zuten.

## 3 Fusilatzea

Kurro, Txapas eta Merino bildu zituzten harkaitz gainean. Merino ezagutu eta berezi ondoren, eta eskuak buru atzean ipinarazi ostean, metro bat baino gutxiagotik tiro egin zieten poliziek Kurro eta Txapas, metrailetan eta eskopetekin. Oso hurbiletik egindako posta tiroak zituen Txapasen gorpuak. Pelitxo eta Pelu uretan edo harkaitz artean hil zituzten.

J. Apeztegia



# Agindu zuenaren peskizian

Pasaiaiko segadaren polizi arduradunak epaitegira deklaratzera deitzea espero dute akusazioko abokatuek, Gipuzkoako Auzitegiak eginbideen artxibatzea bertan behera utzi eta ikerketarekin jarraitzea agindu ondoren

IMANOL MURUA URRIA

A12GO7793 kodearen atzean ezkatuzten den poliziak antolatutako 1984ko martxoaren 22an Pasaiaiko Badian Komando Autonomo Antikapitalistetakoa lau kideren heriotzarekin bukatu zen operazioa, Espainiako Auzitegi Nazionalako eginbide batzuen arabera. Rosa Jimeno atxilotuaren galdeketa instruktoarea izan zen poliziari hori —torturapean KAAko kideekin Pasaian hitzordu egitera behartu zuten Jimeno— eta, horren aurkako eginbideetan ageri denez, A12GO7793 poliziak erabaki zuen Pasaiaiko Badian martxoaren 22an «polizi zerbitzua» ezartzea. Oraindik ez dute deklaratzera deitu ere egin, garai hartan Donostiako komisario buru zena deitu ez duten bezala, abokatuek hainbat aldiz eskatu duten arren. Baina orain esperantza piztu zaie.

Gipuzkoako Auzitegiko 2. sekzioak, auziaren artxibatzea atzera bota eta ikerketarekin jarraitzeko agintzarekin batera, beste hainbat eginbideren artean bi poliziari horiei deklarazioa hartzea argigarri litzatekeela adierazi du, apirillean sinatutako baina aste honetan jakinarazitako autoan. Auzitegiak ezin du eginbide jakinik agindu, hori epaile instruktoari dagokio, baina orain epaileak gomendioari uko ez egitea espero dute akusazio partikularreko (senideak) eta herri akusazioko (Azpeitiko Udala) abokatuek, Santiago Gonzalezek eta Miguel Castellesek hurrenez hurren.

Hogeita bat urte joan dira Pasaia Donibaneko faroaren aurrean Rafael Delas Txapas (Iruñea, 1957), Jose Maria Izura Pelu (Iruñea, 1958), Pedro Mari Isart Pelitxo (Azpeitia, 1961) eta Dionis Aizpuru Kurro (Azpeitia, 1963) segada batean hil zituztenetik.

Lau gorpuek guztira 113 bala eta posta zauri zituzten, autopsien arabera. Bertsio ofizialaren arabera, KAAko kideek tiro egin ondoren erantzun zuten poliziek, baina inoiz ez da ageri komando kideen tiroen inolako arrastorik, Gipuzkoako Auzitegiko azken autoak ere nabarmentzen duenez. Segadan bizirik atxilotu zuten KAAko kide bakarrak, Joseba Merinok, armak poltsetatik atera ere ez zituztela egin deklaratu izan du, eta bere begiekin ikusi zuela hiru poliziari Delas eta Aizpuru fusilatzen, hauek jada atxi-

## AUZITEGIAREN AUTOA

Ustez operazioa agindu zuenari eta orduko poliziaburuari deklarazioa hartzea gomendatzen du

lotuta zeuzkatenean. Hiru poliziari horiek erraz ezagutuko litzatekeela deklaratu zuen epailearen aurrean Merinok. Jimenoren eta inguruan zebilen beste lekuko baten testigantzak bat datoz Merinoren bertsioarekin, baita garai hartan egindako autopsiak ere, besteak beste gorpuek tiroz josita daudelako.

Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak, akusazioen eskariz, hainbat aldiz eskatu dio Espainiako Poliziako arduradunari Pasaiaiko segadan parte hartu zuten poliziari identifikatzeko. Oraingoan, lauren identifikazio zerbakiak baino ez dituzte eman, artxiobotan beste inoren berririk ez dela argudiatuta. Lau poliziari horiek, baina, operazioaren atzeko lehoran izan zirela eta ez zutela tiroetan parte hartu deklaratu zioten epaileari 2002ko ekainaren 6an. Lau polizien deklarazioak, hainbat kontraesan zituztenez, ez zirela sinesgarriak adie-

razi zuen orduan Gonzalez abokatuek. Merinok lehen lehoran zeuden polizietako batzuk ezagutuko litzatekeela deklaratu zuenez, ezagutze saioa egiteko proposatu zuen orduan akusazioak, baino ez zioten onartu. Lau poliziari horietako baten deklarazioaren arabera, ehundik gora agentek parte hartu zuten Pasaiaiko segadan, baina Poliziako Zuzendaritza Nagusiko komisario nagusiak behin eta berriro erantzun du lau horien parte-hartzearen berri baino ez dutela.

A12GO7793 poliziaren arrastoa beren kabuz atera zuten abokatuek, Merinoren eta Jimenoren aurkako eginbideen agirietan arakatu. Hain zuzen, sarraskiaren «egile intelektual» izan daitekeenaren parte-hartzea ezkatuzteagatik, Fernando Amo Donostiako gaur egungo komisario buruaren eta Poliziako Zuzendaritza Nagusiko komisario nagusiaren aurka zigor prozedu-



## Hilketa zantzuak

Autopsietako datuak gogora ekarri ditu Gipuzkoako Auzitegiako autoak, hilketa delituaren zantzuak daudela adierazteko.

**Dioni Aizpuru:** 36 bala eta posta zauri. Zulo bat zuen begian, eta zazpi garondoan.

**Pedro Mari Isart:** 28 bala eta posta zauri. Bi zulo garondoan eta bi bularrean.

**Jose Mari Izura:** 28 bala eta posta zauri. Bi zulo buruan eta bat lepoan.

**Rafael Delas:** 21 bala eta posta zauri. Zulo bat

buruan, beste bat garondoan eta hamar bularrean. Tiroak, gainerako hirurei bezala, distantzia ertain eta luzetik egin zizkioten, autopsiaren arabera. Bi metro «distantzia ertainaren» barruan legokeela argitu zuen autopsien egileak.

## Gertaerak lekukoentz hitzetan

laz Pasaiako segadaren 20. urteurrena zela-eta argitaratutako liburuan (113. *Pasaiako sarraskiaren kronika*, sinadurarik gabea) gertaerei buruzko xehetasunak eman zituzten Jimenok eta Merinok.

### ROSA JIMENO

Lau egun lehenago atxilotu zuten Donostian. KAAko kideekin hitzordua egitera behartu, eta amu gisa erabili zuten Badian, sarraskiaren gauean. Lau urte eta erdi egin zituen kartzelan gero.

**Hitzordua:** «Kristoren ostiak, bainera, kirofanoa, elektrodoak, poltsa... denetik egin zidaten (...). Derrigortu egin ninduten hauei deitzera. Deitu nien, nahi nien zer bait esan baina ez zitzaidan ateratzen, haiek guztiak aldamenen neuzkan eta. Merinorekin hitz egin nuen, eta jarri genuen eguna».

**Tiroketa:** «Arroka behera jaitsi ginen eta poliziek soka batekin

hankak arroka batera lotu zizkidaten. Esan zidaten etortzen zirenean sokatik tirako zidatela. Txalupa iritsi zen, eta linterna batekin jakineko kontraseina egin nien. Orduan arrimatu zen txalupa, eta gauza asko ez dut gogoratzen. (...) *Kurro* bai ikusi nuen. Arrimatu ziren, poltsa batzuk eman zizkidaten, eta une horretan ez nien esan Polizia zegoela, denborarik ez zen egon, segituan poliziek sokatik tira egin zuten, eta tiroka hasi ziren. (...) Gora eramanda bide bazter batean jarri ninduten, polizia bat apuntatu, eta gehiago ez nuen ezer ikusi. Hori bai, tiroak entzuten nituen».

### JOSEBA MERINO

Segadatik bizirik atera zen KAAetako kide bakarra izan zen. Hamazazpi urte eta erdi egin zituen preso, Enrique Casas PSOEko Antolakuntza idazkariaren hilketa zela eta.

**Iritsiera:** «Pasaiako Badiara

iritsi ginen eta Rosa geratu ginen lekuan zegoen ikusi genuen, aurreko aldietan geratu ginen leku bereberean alegia; iritsi, zodiac-aren branka harkaitzen kontra jarri eta Rosari soka bat bota genion. Lehenengo, atzealdetik, *Pelitxo* lurreratu zen eta *Kurro* aurretik. Gero, ni lurreratzeko nintzen eta *Kurro*-ri esan nionean txakurra hartzeko, 'geldi, Polizia!' entzun genuen eta tiroka hasi ziren. Poliziaren gelditzeko deiadarra eta tiroka hastea dena bat izan zen».

**Atxiloketa:** «Dena fokoz bete zen eta ni ababorretik bota nintzen. Igeri pixkat egin eta harkaitzera iritsi nintzen. Oraindik tiroka ari ziren eta dena argitsu zegoen. Tiroak egiteari utzi eta berehala Guardia Zibilaren bi zodiac azaldu ziren, fokoekin. Gure bila ibili ziren. Gutxi gorabehera hiru minutu pasa ondoren aurkitu ninduten. Harkaitzetatik igotzeko agindu

zidaten eta hor zegoen *Kurro* eskuak burura eramanda. Bere eskuinean jarri nintzen, ni ere eskuak altxatuta, guzti hau mehatxuka eta deiadarka, jakina. Besteen bila jarraitzen zuten, txakurrek guri apuntatzen ziguten bitartean. Berehala, *Txapas* aurkitu zuten eta *Kurro*-ren ezkerrean jarraziti zuten, eskuak altxatuta haur ere».

**Fusilatzea:** «Osorik geunden. Orduan, hiru txakur hurbildu ziren. Batek zeintzuk ginen galdetu zigun. Nigandik hasi zen. Nire izena eman nion. Koronela al nintzen galdetu zidan, hau guztia irainka eta oihuka. Nik ezetz, josua nintzela esan nion. Bizpahiru metro urrunago jartzeko agindu zidaten eta, txakur batek zaintzen ninduen bitartean, beste bi txakurrek *Kurro*-ri eta *Txapas*-i galdezka jarraitu zuten. Hauek izenak eman zizkieten. Orduan, bereiagandik metro batera jarri eta fusilatuta zituzten».

## Abokatuen iritzia

**SANTIAGO GONZALEZ**  
(Senitarteko abokatu)

### «Garrantzitsua da poliziaburuei deklarazioa har diezaieten lortzea»



Santiago Gonzalez abokatuak pozik dago Gipuzkoako Auzitegiaren erabakiarekin, bi arrazoi-rengatik: «Batetik,

preskripzioaren aferan arrazoi eman dugu, eta bestetik, autoan argi geratu da oso litekeena dela parte hartu zuten poliziek hilketa delitua egin izana». Akusazio partikularreko abokatuarentzat «garrantzi handia» du polizi operazioaren uesteko antolatzaileari eta garai hartako komisario nagusiari deklarazioa hartzea eta, «Auzitegiak eman digun indarrarekin», oraingo honetan deklaratzera deituko dituzten esperantza du. Erantzuleak atzemate zaila izango dela badaki —«Estatuaren egitura botereetsua daukagu parean»—, baina aurrerapauso handiak ere eman dituztela azpimarratu du: «2000an bakar-bakarrak geunden. Ez genuen uste inongo poliziak deklaratu zuenik, Azpeitiko Udalak parte hartuko zuenik... Lanean ari gara, lanean jarraituko dugu. Merez du. Eta familien ordezkari gisa, ezin dut inoiz etsi».

**MIGUEL CASTELLS** (Azpeitiko Udalaren abokatu)

### «Identifikazioak ezkututzen ari zaizkigu»



Auzitegiaren erabakia pozik egoteko dela uste du Miguel Castells, baina zuhur jokatu nahi du, «eginbide jakinei buruzko agindurik ezin baitu eman Auzitegiak». Instruktoarek Auzitegiaren iritzia uko ez diola egingo uste badu ere, hori ere gerta litekeela dio. Orain arte parte hartu zuten polizien identifikazioa ezkutatu izan dietela gogorarazi du Castells. «Urteak daramatza izenak eskatzen. Eta ez dizkigute guri ukatzen, Epaitegiari bai!» Gertaerak argituko diren esperantza? «Ez daukat kristalezko bolarik. Ikusiko dugu. Ez dugu guk bakarrak jokatzen, eta ez dakigu hurrengo jokaldiak nondik nora etorriko diren».



**PEDRO MARI ISARTEN** senide bat, Santiago Gonzalez abokatuak, Joseba Merino eta Rosa Jimeno, poliziek deklaratu zutenean. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



**INPUTATUTAKO** poliziak, 2002ko ekainean, Donostiako Epaitegian deklaratu ostean, auto barruan alde egiten. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ra zabaltzea proposatu zuen akusazio partikularrak, baina Gipuzkoako Auzitegiak, aste honetako autoan, eskaera atzera bota du, poliziaburuek behar besteko zehaztasunez ez zutela erantzun onartu arren.

Sarraskiaren antolatzaile izan daitekeenaren identifikazioa egiaztatu aurretik —2003ko maiatzaren 29an—, gertaeren garaietan Donostiako komisario buru zena deklaratzera deitzeko eskatu zion akusazio partikularrak, bost aldiz, epaitegiari. Epaitegiak erantzun ere ez dio egin eskaerari. Beraz, deklaratzera ez deitzeko argudioak zein diren ez dute inoiz jakin abokatuak. Orain, Gipuzkoako Auzitegiaren autoaren ondoren, instruktoarek zailago izango du ez entzunarena egiten. Honelaxe dio autoak, hitzez hitz: «Orain

arteko instrukzio eginbideek gertaerak egoki argitze aldera fruitu eskasa eman dutenez, komenigarria izan liteke Poliziaren Gorputz Nagusiko A12GO7793 funtzionarioari eta Donostiako polizia etxeko gertaeren garaiko (Informazio) komisario nagusiari deklarazioa hartzea, komandoaren iritsiera aurreikusia zela-eta antolatutako dispositiboari buruzko eta bertan parte hartu zutenei buruzko argibideak eman ditzaten».

### Ikerketa berantiarra

Gertaerak duela 21 urtekoak bada ere, bost urte baino ez dira benetako ikerketa abiatu zela. Bertso ofiziala ontzat emanez, 1987an sumarioa itxi egin zuen Calvo Rojas epaileak, behin-behinean. Lozorroan egon zen

auzia 2000ko maiatzera arte, hildakoen senideen izenean Santiago Gonzalez auzia aztertzeko hasi zen arte. Agiriaren artean Merinok Alcalako espetxean 1987an egindako deklarazioa falta zelako berpiztu ahal izan zuen ikerketa Gonzalezek.

Donostiako 2. instrukzio epaitegiak Merinori deklarazioa hartzea lortu zuen abokatuak, eta haren ondotik etorri ziren gainerako eginbideak. Bi aldiz deklaratu zuen Merinok —Santoñako presondegiaren 2000ko irailean, eta Donostiako epaitegiaren bertan 2001eko urtarrilaren 8an—. Bost egun lehenago, Azpeitiko Udalak herri akusazio gisa jokatzea erabaki zuen, eta Miguel Castells izendatu zuen lan horretarako. Gero etorri ziren Rosa Jimenoren testigantza, beste herrietar batena, autopsien egilea-

renak... Eta, azkenean, 2001eko urriaren 9an, fiskalak berak egileak identifikatzeko eskatu zuen. Ondoren etorri ziren Donostiako polizia etxeak identifikatutako lau polizien deklarazioak, 2002ko ekainaren 6an, eta gainerako polizien identifikazioa lortzeko eta polizi ardura-dunei deklarazioa hartzeko borroka oraingo fruiturik gabek.

Horretan ari zirela erabaki zuten instruktoarek auzia artxibatzea, iaeko ekainaren 24an, «egile ezagunik» gabe preskripzio epea agortu zela argudiatuta. Auzitegiak, ordea, berriro zabaldu du ikerketa: preskripzio epea ez dela bete erabaki du, eta operazioan parte hartu zuten poliziek hilketa delitua egin zuten zantzuak daudela baieztatu du, lekukoentz testigantzetan eta autopsien emaitzetan oinarrituta.